

MUSICA DE PAPEL

(Los eventos musicales desde un centro de documentación)

PAPEREZKO MUSIKA

(musika-ekitaldiak dokumentazio-zentro batetik)



**EXPOSICIÓN EN LA FUNDACIÓN
SANCHO EL SABIO:**

Portal de Betoño 23

Del 4 de JULIO HASTA 31 DE
AGOSTO

HORARIO: D3 8:15 A 15:15 DE
LUNES A VIERNES

(Del 1 al 16 de agosto la
Fundación permanecerá cerrada)

**ERAKUSKETA SANCHO EL SABIO
FUNDAZIOAN:**

Betoñuko Atea, 23

UZTAILAREN 4tik ABUZTUAREN
31ra

ORDUTEGIA: 08:15-15:15,
ASTELEHENETIK OSTIRALERA

(Abuztuaren 1etik 16ra
Fundazioa itxita egongo da)

Música de papel es una pequeña exposición gráfica que se puede visitar en la Fundación Sancho el Sabio. El título hace referencia al soporte papel en la música. Además de partituras impresas o manuscritas en papel, existen otros documentos relacionados con los eventos musicales: son los materiales gráficos como carteles, folletos, programas, anuncios...impresos en papel...de ahí **música de papel**.

Entre la documentación que recopila la Fundación Sancho el Sabio, se puede consultar una extensa colección de materiales gráficos impresos, entre los que se encuentran los carteles o afiches. **Música de papel** quiere mostrar una selección de carteles sobre los eventos musicales que se han celebrado en Vitoria-Gasteiz a lo largo de los últimos 35 años.

35 años que coinciden con las ediciones del **Festival de Jazz de Vitoria-Gasteiz**. 35 ediciones que han generado un gran fondo documental gráfico impreso. En la exposición **Música de papel**, se recuerda esta trayectoria temporal del festival con una selección de los carteles, empezando por el de la primera edición de 1977 y terminando con el de este año.

Julio en Vitoria-Gasteiz es sinónimo de Jazz. El **Festival de Jazz de Vitoria-Gasteiz** celebra estos días su trigésimo quinta edición, pero hay más eventos relacionados con la música a lo largo del año: **Azkena Rock Festival**, que este año ha celebrado su décima edición. La **Semana Coral Internacional de Álava**, la **Semana de Música Antigua**, el **Festival Internacional de Música Carmelo Bernaola**, los conciertos de la **Orquesta Sinfónica de Euskadi**... etc. Eventos que también han dejado documentación en papel y que también forman parte de la selección de **Música de papel**.

A la selección de carteles que se exponen, se añaden diversos documentos que de forma accesible (pueden ser consultados por los visitantes) muestran otros aspectos de la documentación referida a la música: partituras, manuscritos sin editar, monografías sobre grupos musicales, monografías sobre música alavesa, programas de festivales, conciertos.... que representan la tipología y variedad de la documentación en papel.

Además de todos estos ciclos musicales de periodicidad fija, la ciudad recibe la visita de compañías de ópera o de actuaciones musicales programadas de forma esporádica. La variedad es muy rica, de música sinfónica a grupos actuales, solistas y cantautores, música actual y música clásica.... Son actos que generan documentación impresa que, recopilada, ordenada y escrita, permite conocer la vida cultural de la ciudad. La música también se puede investigar en papel. Esto es **Música de papel**, un acercamiento a la música en Vitoria-Gasteiz desde el punto de vista de la documentación que genera en papel.

Paperezko musika erakusketa grafiko txiki bat da, eta Sancho el Sabio Fundazioan dago ikusgai. Izenburuak musikaren paperezko euskarria adierazten du. Inprimatutako eta paperean eskuz idatzitako partiturez gain, badira musika-ekitaldiei lotutako beste dokumentu batzuk ere: material grafikoak dira, hala nola kartelak, liburuxkak, programak, iragarkiak eta abar, guztiak paperean inprimatuak; hortik dator paperezko musika izenburua.

Sancho el Sabio Fundazioak bildu duen dokumentazioaren artean, material grafiko inprimatuak (eta, tartean, kartelen edo afixen) bilduma handi bat kontsulta daiteke. **Paperezko musika erakusketan**, Gasteizen azken 35 urteotan izan diren musika-ekitaldiei buruzko kartel sorta bat dugu.

35 urte horiek berak ditu **Gasteizko Jazzaldiak**. 35 edizio horietan, dokumentu-funts grafiko inprimatu handia sortu da. **Paperezko musika erakusketan**, jazzaldiak denboran egindako ibilbidea gogorarazi nahi da. Horretarako, kartel sorta bat dago ikusgai, 1977ko lehen ediziokoarekin hasi, eta aurtengo ediziokoarekin amaitzeraino.

Gasteizko uztaila eta Jazza sinonimoak direla esan daiteke. **Gasteizko Jazzaldiaren** hogeita hamabosgarren edizioan murgilduta gaude egun hauetan, baina badira musikari lotutako ekitaldi gehiago ere urtearen barruan: **Azkena Rock Jaialdia** (hamargarren edizioa izan da aurten), **Arabako Abesbatzen Nazioarteko Astea**, **Antzinako Musikaren Astea**, **Carmelo Bernaola Nazioarteko Musika Jaialdia**, **Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertuak** eta abar. Ekitaldi horiek ere utzi dute paperezko dokumentazioa, eta **Paperezko musika erakusketan** sartu dugu.

Erakusgai dagoen kartel sortaz gain, musikari lotutako dokumentazioaren beste alderdi batzuen berri ematen duten beste hainbat dokumentu daude, eta bisitariek konsultatzeko moduan antolatu dira: partiturak, argitaratu gabeko eskuizkribuak, musika-taldeei buruzko monografiak, Arabako musikari buruzko monografiak, jaialdien eta kontzertuen programak eta abar, paperezko dokumentazioaren tipologiaren eta barietatearen erakusgarri.

Aldizkakotasun finkoa duten musika-ziklo horiez guztiez gain, noizean behin programatutako opera-konpainiak eta musika-ekitaldiak izaten ditugu hirian. Eskaintza oso aberatsa da: musika sinfonikoa eta gaur egungo taldeak, solistak eta kantautoreak, gaur egungo musika eta musika klasikoa... Ekitaldi horiek dokumentazio inprimatua sortzen dute, eta dokumentazio horrek, behar bezala bilduta, antolatuta eta deskribatuta, hiriko kultura-bizitzaren berri izateko aukera ematen du. Musika paperean ere iker daiteke. Horixe da **Paperezko musika**, Gasteizko musikarako hurbilketa bat paperean sortzen den dokumentazioaren ikuspegitik.

La Fundación Sancho el Sabio es una fundación privada sin ánimo de lucro que nació en 1992 con la voluntad de contribuir a la mejora de la calidad de vida de las personas mayores. Para ello, desarrolla una serie de servicios y programas que responden a las necesidades de los mayores y sus familias. La Fundación Sancho el Sabio trabaja para que las personas mayores puedan vivir en su entorno familiar y comunitario, manteniendo su independencia y su calidad de vida. Los servicios y programas que ofrece la Fundación Sancho el Sabio están dirigidos a personas mayores de 65 años y más, así como a sus familias y cuidadores. Los servicios y programas que ofrece la Fundación Sancho el Sabio están dirigidos a personas mayores de 65 años y más, así como a sus familias y cuidadores.

FUNDACION - FUNDAZIOA

Sancho el Sabio

Caja Vital Vital Kutxa

Para más información:

**FUNDACION SANCHO EL
SABIO FUNDAZIOA**

945 253932

www.fsancho-sabio.es

fs-inv@fsancho-sabio.es

Informazio gehiago nahi
izanez gero:

**FUNDACION SANCHO EL
SABIO FUNDAZIOA**

945 253932

www.fsancho-sabio.es

fs-inv@fsancho-sabio.es